



**RAPHERRIA, Euskal Rap Bilduma
infozazpi irratia
2011ko azaroa**

Taldeak

Euskal Herriko herrialde guztietako 17 taldek parte hartu dute bilduma honetan. Guztiek euskarazko rap musika egiten dute; batzuek, espreski sortu dituzte bildumarako kantu berriak. Orotara 6 izango dira bilduma honetan aurkituko diren kantu berriak: MAK, La Chula Potra, ZKH (Goienetxe anaiak) eta FLCH, 100% Gourmet, Toastibarre eta 2zio-renak. Hauek dira bilduman parte hartu duten taldeak:

Norte Apache [norte.apache@gmail.com/](mailto:norte.apache@gmail.com) norte-apache.blogspot.com/
facebook/Norte Apache @NorteApache (0034) 685 774 454

MAK [eyherabide.jon@voila.fr/](mailto:eyherabide.jon@voila.fr) www.myspace.com/makhiphop (0033) 687 193 702

Bad Sound System + Asthmatic Lion [badsoundsystem@gmail.com/](mailto:badsoundsystem@gmail.com)
www.muguruza.fm/ (0034) 652 738 599

La Chula Potra juliaitoiz@gmail.com

ZKH (Goienetxe anaiak) eta FLCH www.goienetxeanaiak.com/
www.myspace.com/goienetxeanaiak goienetxeanaiak@gmail.com

121 krew 121krew@gmail.com

Indarrap [indarrap@hotmail.com/](mailto:indarrap@hotmail.com) 3w.myspace.com/indarrap

Raperos de Emaus [ritxarlo@yahoo.es/](mailto:ritxarlo@yahoo.es) www.myspace.com/raperosdeemaus
bandcamp.raperosdeemaus.com/ (0034) 619 080 245

2zio bizio@live.fr

ZTK Rap [ztk_rap@hotmail.com/](mailto:ztk_rap@hotmail.com) myspace.com/ztkrap (0034) 637 974 273

FDLN www.myspace.com/fdln

Ardi Beltza www.ardibeltza.com

Thow MC thow_rap@hotmail.com

100% Gourmet [cienporciengourmet@gmail.com/](mailto:cienporciengourmet@gmail.com)

100x100gourmetrecords.blogspot.com/ www.myspace.com/100x100gourmet (0034)
627 776 255 (0034) 609 479 263 (0034) 679 335 716

RPV www.myspace.com/realesdeporvida

Toastibarre toastibarre@gmail.com

Mix6T mix6t@aol.com

Parte hartzaileak

Aritz Usandizaga musika aditu/adiktoak proposatu zigun euskal rap bilduma egiteko ideia. Bere laguntza izan dugu bidelagun eta bere hitzaurrea topatuko duzue diskoan.

Carlos Osinaga *Txap* teknikariak egin ditu bildumaren soinu moldaketak

Iñaki Gonzalezek azala

Maialen Maritxalarrek maketazioa

Ritxi Aizpuruk ekoizpen lanetan lagundu digu

Arrazoiak

Euskaraz egindako rap musika zabalduz doa Euskal Herrian. Aldeak, halere, nabarmenak dira. Musika mota hau sortu eta entzuteko kultura handiagoa dago Ipar Euskal Herrian, Hego Euskal Herrian baino. Estatu frantsesean musika mota honek izan duen garapenak eragin zuzena izan du horretan. Halere, azken urte hauetan, Euskal Herriaren luze zabalean hedatuz doa euskaraz egindako rap-a.

Gero eta gehiago dira nahasteko mahaia eta mikroa eskuetan hartu eta *haserretuen* musika hau egiteari ekin dioten gazteak. Oraindik orain, irrati eta sare ofizialetatik baztertutako musika izaten jarraitzen du; sistemarekiko kritiko diren letrak oinarri hartuta, estilo gogorreko musika kontsideratua baita. Kaleko musikatzat jotzen dute askok, “underground” giroko musikatzat.

Rap musika, gure herriko musika berria dela esan liteke; bertako herritarren kezkek helarazteko aukera ematen duen tresna berri bat, rap doinuez jantzitako tresna. Eta tresna horri, musika berri horri, oihartzun eman asmoz dator infozazpi irrati bilduma honekin. Gure herria, rap-a egiten duen herria ere badelako.

Infozazpi irratiak bere sorreratik informazioa, musika eta kultura izan ditu ardatz nagusi. Asko dira, hasiera hasieratik, musika berezitu hainbati buruzko saioak egin dituzten eta egiten dituzten kolaboratzaileak gurean. Batzuk aipatze arren, Rafa Cabeza, Aritz Usandizaga, Andoni Tolosa *Morau*, Jon Eskisabel edota Esther Martinez (*ikus informazioa web orrian*). Euskal musikak gainera, tarte berezia eta berezitua du gurean. Eta aurrera begira ere, horrela izaten jarraituko du. Infozazpi irratiaren ardatz nagusi diren hiru arlotan (informazioa, musika eta kultura) urrats ausartak ematera goaz. Horren adibide da Rapherria bilduma.

Infozazpi irratiak hamazazpi musika talde hauekin eta beste hainbat lagunekin elkarlanean egindako bilduma izan da honakoa. Eskerrak eman nahi dizkiegu bilduma honetan parte hartu duten talde guztiei, Aritz Usandizagari, Jon Eyherabideri, Daddyjeff-i, Ritxi Aizpururi, Koldo Otamendiri, eta urte osoan musika

saioak ekoizten dituzten gure kolaboratzaileei.

Bilduma, irabazi asmorik gabeko proiektua izanik, Creative Commons labelpean argitaratzera erabaki dugu, label librea dein eanean, bildumako sorkuntzak modu librean zabal daitezten.

Zabalpena

Durangoko azokako Ahotsenea gunean abenduaren 7an arratsaldeko 17:30etan eskainiko den kontzertuan aurkeztuko da Rapherria diskoa. Azokak irauten duen denboran, bertan eskuratzeko aukera ere izango da 8 euroren truke, GARAREN, Gaztezuloren eta Gatuzainen standetan. Horrezgainera, GARA dendan eros gai izango da prezio berean azaroaren 30etik aurrera.

Urtarriletik aurrera berriz, diskoa herrialdez herrialde aurkezteko bira abiatuko da. Bilduman parte hartu duten taldeek kontzertuak eskainiko dituzte. Sarrerarekin batera diskoa oparituko zaie gerturatzean direnei 10 euroren truke.

www.info7.com en Rapherria bildumaren inguruko informazio guztia topatuko duzue, azaroaren 28tik aurrera.